

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2022ko apirila

Euskal AEko landa-ostatueta eta apartamentu turistikoetan 2022ko apirilean erregistratutako sarrerak 2019ko apirilekoak, COVIDa baino lehenagokoak, baino handiagoak izan dira

Atzerriko jatorriko sarreraren eta gualdien gorakada bereziki esanguratsua izan da

Euskal AEko **landa-ostatueta** 15.095 sarrera eta 36.482 gualdi izan dira 2022ko apirilean; urte arteko hazkundera, hurrenez hurren, % 140,4koa eta % 82,3koa izan da, Eustaten datuen arabera. 2019ko apirilean, COVIDaren aurretik, eta Aste Santuko egun guztiak barne harturik, 15.088 sarrera izan ziren, baina gualdiak 37.927 izan ziren.

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Apirila 2022

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
	2022/04	m/m-12 (%)	2022/04	m/m-12 (%)	2022/04	2021/04	plazen arabera		gelaka	
	2022/04	m/m-12 (%)	2022/04	m/m-12 (%)	2022/04	2021/04	2022/04	p.p. *	2022/04	p.p. *
EUSKAL AE	15.095	140,4	36.482	82,3	2,42	3,19	27,3	11,2	31,1	11,7
Estatukoak	13.009	111,3	31.471	61,5	2,42	3,17	-	-	-	-
Atzeritarrak	2.086	1.638,3	5.011	854,5	2,40	4,38	-	-	-	-
Araba/Álava	2.791	74,3	6.296	36,4	2,26	2,88	19,6	3,5	22,6	3,8
Estatukoak	2.606	62,8	6.057	31,6	2,32	2,87	-	-	-	-
Atzeritarrak	185	-	239	1.607,1	1,29	-	-	-	-	-
Bizkaia	4.182	112,2	9.079	55,2	2,17	2,97	24,2	7,4	28,1	8,2
Estatukoak	3.775	95,7	7.406	30,1	1,96	2,95	-	-	-	-
Atzeritarrak	407	869,0	1.673	945,6	4,11	3,81	-	-	-	-
Gipuzkoa	8.122	200,1	21.107	121,0	2,60	3,53	33,0	17,4	37,3	17,9
Estatukoak	6.628	152,2	18.008	95,7	2,72	3,50	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.494	1.815,4	3.099	782,9	2,07	4,50	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hila bate berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hila batean izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hila bate berarekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Maiatzaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko landa-ostatueta izaniko sarreraren % 86,2 eta gualdien % 86,3 Estatutikoak izan dira 2022ko apirilean. Halaz ere, aurreko hilabeteetan bezala, atzerriko jatorriko pertsonen sarrerak eta gualdiak bereziki ugari dira, 1.966 sarrera eta 4.486 gualdi gehiagorekin, aurreko urteko apirilean baino.

2022ko apirilean sarrerak eta gualdiak % 74,3 eta % 36,4 igo dira, hurrenez hurren, Araban. Bizkaian, sarrerak % 112,2 gehitu dira, eta gualdiak % 55,2. Azkenik, Gipuzkoan, 2021eko apirilaren aldean, sarrerak % 200,1 igo dira, eta gualdiak % 121,0.

Establezimendu-mota horien batez besteko egonaldia 2,42 egunekoa izan da 2022ko apirilean, 2021eko hilabete berean izaniko 3,19 eguneko egonaldia baino laburragoa.

Plazakako eta logelakako okupazio-mailek ehuneko 11 puntutik gorako urte arteko igoera izan dute: % 27,3 plazaka neurtuta eta % 31,1 logelaka neurtuta.

Apartamentu turistikoei dagokienez, **2022ko apirilean**, sarrerak eta gaualdiak 11.430 eta 42.689 izan dira, hurrenez hurren. Aurreko urteko apirilaren aldean, urte batetik bestera sarrerak % 177,8 gehitu dira eta gaualdiak % 89,3. 2019ko apirilean, COVIDaren aurretik, eta Aste Santuko egun guztiak barne harturik, hala sarrera-kopurua nola gaualdiena txikiagoa izan zen: 8.184 sarrera eta 26.730 gauldi.

Sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. Apirila 2022

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamenduka	
	2022/04	m/m-12 (%)	2022/04	m/m-12 (%)	2022/04	2021/04	2022/04	p.p. *	2022/04	p.p. *
EUSKAL AE	11.430	177,8	42.689	89,3	3,74	5,48	37,1	15,6	68,9	24,3
Estatukoak	8.193	109,5	29.514	53,4	3,60	4,92	-	-	-	-
Atzeritarrak	3.237	1.489,8	13.175	298,2	4,07	16,25	-	-	-	-
Araba/Álava	1.187	81,3	7.677	30,9	6,47	8,96	23,7	2,3	70,3	16,4
Estatukoak	1.079	71,2	6.112	18,9	5,66	8,16	-	-	-	-
Atzeritarrak	108	344,6	1.565	116,8	14,55	29,83	-	-	-	-
Bizkaia	7.219	250,8	16.219	188,9	2,25	2,73	38,2	22,7	57,7	24,7
Estatukoak	4.892	148,6	10.556	107,3	2,16	2,59	-	-	-	-
Atzeritarrak	2.326	2.497,2	5.663	987,9	2,43	5,81	-	-	-	-
Gipuzkoa	3.024	115,8	18.794	69,7	6,21	7,90	46,7	20,0	75,4	28,4
Estatukoak	2.221	69,4	12.846	42,6	5,78	6,87	-	-	-	-
Atzeritarrak	803	793,8	5.947	187,9	7,41	23,00	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hila bete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hila beteaz inandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hila bete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Maiatzaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Atzeritar jatorriko bisitarien kopurua Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrera guztien % 28,3 eta gauldien % 30,9 izan da 2022ko apirilean. Urte arteko igoera nabarmenak izan dira, 3.033 gehiago sarrera-kopuruan eta 9.867 gauldienean.

Establezimendu-mota horien batez besteko egonaldia 3,74 egunekoa izan da 2022ko apirilean, 2021eko apirilean baino laburragoa, orduan 5,48 egunekoa izan baitzen.

Lurraldeei dagokienez, batez besteko egonaldia, 2022ko apirilean, 6 egunetik gorakoa izan da Araban eta Gipuzkoan; Bizkaian, ordea, 2,25 egunekoa izan da.

Plazakako okupazio-maila, Euskal AEn oro har, % 37,1era iritsi da, hau da, ehuneko 15,6 puntuko hazkundea izan da 2021eko apirilaren aldean. Apartamentuka neurtuta, okupazio-maila % 68,9an kokatu da, urte arteko % 24,3 puntuko igoera izanik.

2022ko Aste Santuaren balantzea

2022ko Aste Santuan Euskal AEko **landa-ostatueta**n izandako sarrerak eta gaualdiak aurreko urteko Aste Santuan baino % 19,2 eta % 15,5 handiagoak izan dira, hurrenez hurren. Atzerriko jatorriko pertsonetan ikusitako igoerak nabarmentzen dira, nahiz eta oraindik guztizkoaren % 10 inguru diren.

Araban, 2022ko Aste Santuan, sarrerak % 12,4 igo dira aurreko urtearen aldean, eta gualdiak % 6,2. Bizkaian, sarrerak eta gualdiak % 39,8 eta % 7,7 gehitu dira, hurrenez hurren. Gipuzkoan, aldiz, % 9,6 gehitu dira sarrerak, eta gualdiak % 24,7.

Euskal AEko landa-ostatueta okupazio-maila % 66,0koa izan da aurtengo Aste Santuan plazaka neurtzean, aurreko urtean baino ehuneko 4,5 puntu handiagoa, eta % 69,7koa logelaka neurtzean, hau da, 2021eko Aste Santuan baino ehuneko 3,4 puntu handiagoa.

Euskal AEko landetxeetako sarrerak, gualdiak eta okupazio-mailak. Aste Santua (*). 2022

	Sarrerak		Gualdiak		Okupazio-mailak			
					plazen arabera		gelaka	
	2022	2022 / 2021 (%)	2022	2022 / 2021 (%)	2022	p.p. *	2022	p.p. *
EUSKAL AE	3.601	19,2	12.200	15,5	66,0	4,5	69,7	3,4
Estatukoak	3.218	7,4	11.197	6,7	-	-	-	-
atzeritarrak	383	1495,8	1.003	1419,7	-	-	-	-
ARABA/ALAVA	831	12,4	2.702	6,2	62,5	-3,6	66,1	-8,3
BIZKAIA	1.243	39,8	3.187	7,7	60,3	-0,1	65,1	-0,5
GIPUZKOA	1.527	9,6	6.311	24,7	70,9	10,9	74,3	11,4

(*)Aste Santua: Ostegunetik igandera (4 gau).

p.p.*= aurreko urteko hila bete berarekiko portzentajeazko puntu aldea

Data 2022ko Maiatzaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko **apartamentu turistikoetan**, 2022ko Aste Santuan, 2.227 sarrera izan dira, eta 8.502 gualdi; beraz, aurreko urteko aldi beraren aldean, % 62,6 eta % 67,8 gehitu dira, hurrenez hurren. Atzerrian bizi direnen sarrerak eta gualdiak % 24 inguru izan dira, aurreko urtean baino askozaz gehiago.

Lurraldeka, sarrera-kopurua % 33,5 hazi da Araban, % 1,6 Gipuzkoan eta % 132,0 Bizkaian. Gualdien kopurua % 26,0 igo da Araban, % 38,2 Gipuzkoan eta % 152,7 Bizkaian, nabarmena dena.

Okupazio-maila % 62,4ra iritsi da plazen arabera neurtuta, eta % 92,9ra apartamentuen arabera neurtuta, ehuneko 21,6 puntu eta ehuneko 30,7 puntu 2021eko Aste Santuan ikusitakoaren gainetik, hurrenez hurren.

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrerak, gualdiak eta okupazio-mailak. Aste Santua (*). 2022

	Sarrerak		Gualdiak		Okupazio-mailak			
					plazen arabera		gelaka	
	2022	2022 / 2021 (%)	2022	2022 / 2021 (%)	2022	p.p. *	2022	p.p. *
EUSKAL AE	2.227	62,6	8.502	67,8	62,4	21,6	92,9	30,7
Estatukoak	1.687	28,7	6.481	40,9	-	-	-	-
atzeritarrak	540	831,0	2.021	331,8	-	-	-	-
ARABA/ALAVA	291	33,5	1.525	26,0	39,2	4,6	89,8	21,0
BIZKAIA	1.362	132,0	3.636	152,7	72,6	41,0	95,6	44,5
GIPUZKOA	574	1,6	1.022	38,2	70,5	15,0	92,7	27,3

(*)Aste Santua: Ostegunetik igandera (4 gau).

p.p.*= aurreko urteko hila bete berarekiko portzentajeazko puntu aldea

Data 2022ko Maiatzaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Informazio-oharrak

Landa-ostatuen ETHIren erantzun-tasa % **98,0** izan da, eta Apartamentu turistikoena % **82,1**, 2022ko apirilean.

Eustatek eskerrak ematen dizkie eginiko ahaleginagatik inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: Tlf: 945 01 75 62